

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

227n. zenbakia
martia (epaila) 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



MATEROLA'TAR GABIREL'ERI OMENALDI BAT ZEANURI'N EZKERRETIK ESKUMARA:

ZUBIRI'TAR IÑAKI, BILBAO'TARRA

AKESOLO'TAR LINO, KARMELDARRA

ZUBIKARAI'TAR JOSEBA, KARMELDARRA

ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN, ONDARRUTARRA

ZELAI'A'TAR PEDRO ABADE EIBAR'TARRA

ONAINDIA'TAR SANTI, KARMELDARRA

GORPUTZA TA GOGOA

Gorputza ta gogoa, gauz bi onen bitartez, lurlean ikusten dan izakirik bikaiñena sortzen da... notin edo personea. Nor garan ta zertarajo garan ikusten alegindu gaitezen.

Lurlean diran zer guztien artean izakirik bikaiñena notin edo personea da. Izan be, personearen duitasuna oiñetik eta burura bardin bagea da abere guztien artean. Oiñak, eskuak, arpegiko joskera begi izar birekin batean arrigarria da personearen izatea. Aragia zelan edertu leitekean orrenbestean, ametsezkoa dirudi giza-semearentzat. Baiña gizonaren goitik dagoan amai-gabeko argitsuak izaki bikaiñak sortu zituan andre-gizonetan.

Aurezaz ekian gizonaren barri zer-nolako bizitza egin bear eban lurraren gaiñean. Lan guztietarako bear eban egokitasuna bere gorputzean. Mendietan ibilko zan gizona aldi batzuetan ideak ebagi, zugatzak zerratu ta mendi bizkarrak garbitzen bizibideari erantzun al izateko. Ta lan orreik eskatzen eben gorputzaren egokitasuna oin eta esku ta gorputz guztian patxada egokian.

Gizonaren bizia ez etorren menditik bakarrik. Begiratu daigun erreka-ertz ta lau aldietara. Lurrak itxaroten dagoz, bizi opaka, esku lanari. Ta baserrietako andre-gizonak oin ta esku an dabilnaz lanean lurrari ogia ateraten urrezko garitza ederretan. Gorputza ernai dago ta eskuak igetai zorrotzagaz askar dabilnaz lastoak ebagi ta gariak baten kaleko jende kutunak ogi janaria izan dagian.

Ta onen inguruan beste gauz eder batzuk ba dira euskaldunen artean aitzatzeko gai ederrak direnak. Esku pelota ta ostiko pelota geure geuretar ditugu. Goazen euzko zelaietara ta amaika mutil, eder lez lirain, ikusiko ditugu jendearen poz-

garri aurrera ta atzera oiñez ta buruz ta zearka albora pelotoi zuria iru aga zuriren barruan sartzen. Egokitasuna bear dau gorputzak ta orixe da ikusten dogun gizonaren alderdi eder bat.

Baiña orrez goitik ba-dau persona edo notiñak beste alderdi eder bat, ikusten ez dana ta asmetan dana. Txiki txikitatik ba-doaz neska-mutillak eskolara ta irakaslearen berbea atsegini jaki ta argitasuna asmetan asi dira euren barruan urterik urtera poz geiago damotse ikasteak. Ta ikaste —aurretik ara nora— eldu dan gizonaren jakituri gaisoaren nekeak osatzen ta itxasoak zear urak menperatzera.

Itxasoera eder onen inguruan beste gauza eder batzuk lortu ditu arimaren gogo onak ta askoren artean ederrena urko laguna maiatzea ta onen inguruan geure Egillea. Berezkoa da egin gaituana ezagutu ta Sorle agurgarri ori geure ongilletzat artzea ta izadiaren Sortzaillea danez, gauza guztiak seme-alaba guztien onerako erabiltea.

Egia esan bear da, euskaldun askok ontzat artu ebela aldiaren joan etorrian euren Egillea ta baita maitasunaren argi gozoa zabaldu be, emen, geure lurlean ta an, itxasoz andiko lurraldeetan. Arimaren almenak ederrak dira izan be: oroimena, adimenata naimena. Iru almen zoragarri onen bidez personeak bere jakituria ezagutu ta zertarako eta norako garan ikusten dau.

Pesonearen jakiturizko ta borondatezko izakereak gure bizia gizartean alkartasunezkoa izan bear daua la agertzen deusku. Ortarako dira itxaso eta lurreko ondasun guztiak adimendun ta borondatedun gizaki guztiak gozartu ta bakean bizi daitezen.

GIZAKIA

Gorputz eta arima
gizona deritxona
landara ederra:
argi ta maitasunak
indartu bear dabe
bizitza-izarra.

Zer daukazu gizona
zure barne orretan
maitez kutsuturik:
alkarganako lela
irakitan darabilt
miñez larriturik.

PAU LIN

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

URTEKO BATZAR NAGUSIA

"EUSKERAZALEAK ALKARTEA"REN

EKINTZAK (1997)

Gabon Jaun-Andreok: Lenengo ta bein batzar nagusi onetan gure gomutapena, joan jakun Jesus Oleaga'rentzat da. Gure Lendakari izana eta laguntzaille ona izan dogu. (G.B.).

Urte guztietako oitureari jarraituz, ona emen igaz egin-dako gure ekintzen azalpena.

ro ospatu izan doguz gure izkuntzaren ikastaroak. 8.000 bat ikasle igaro dira gure etxetik aberriaren berbetea ikasteko, eta onek beste ezerk baiño geiago poztuten gaitu. Aurtengo ikasle-kopurua igazkoa baiño andiagoa izan da.

Euskal Astea

Urte guztietan lez, Gabonillaren lenengo artean, Esko-lapiotarren ikastetxean, Euskal Astea ospatu genduan, eta beste urteetan lez, entzuleen kopurua naikoa ugarria izan zan. Ona emen izlariak eta emondako gaiak:

Euskal Ikastaroa

Oikoa danez, lengo Urrila'n gure euskal ikastaroa asi zan. 1977n. urtean gure erakundeak asiera emon eutsan euskerearen irakaskintzari, eta ordutik, eten barik, urte-

1. Legarreta'tar Asier.
2. Zubiri'tar Iñaki.
3. Olazar'tar Martin.
4. Zubikarai'tar Augustin.
5. Olazar'tar Martin.

- "Bertsolariak eta euren eskolea"
- "Aurre-Apraiz olerkari"
- "Bizkai'ko euskerearen laburpenak"
- "Gabonetako oiturak"
- "Bizkaiko Euskerearen Agozkerak"

Ipuin-sariketa

Ezin lengo urtean, Ipuin-Sariketari dei egin barik geratu, eta oikoa danez, lanak saritzeko deia egin genduan eta oneik izan dira sarituak:

Lenengoa.....	50.000	laurleko	Gokoetxea'tar Iñaki
Bigarrena.....	40.000		Arrinda'tar Anes
Irugarrena.....	30.000		Kortajarena'tar Andoni
Laugarrena.....	20.000		Legarreta'tar Asier
Boskarrena.....	10.000		Zubikarai'tar Augustin

Aurten, maikoen epaiketa au zeozer atzeratu egin da, baiña "ZER" zenbaki onetak agertu dira sarituen izen oneik.

ZUBIRI'tar IÑAKI
(LENDAKARIA)K



Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

LURRAREN DABE

Itaun oneri erantzuna ez da bardiña gaur emon edo lurgintzaren asieran emon: Orduan lurra gizonena zan, orain jabeena.

Lurra jabeena izaten asi zan, gizona lur-langille biurtu zanean, lau milla-bat urte dirala. Lenago bizi ziran artzainak ez eben euren zan lurrik, edonon jaten eben euren abereak lurrak emoten ebana.

Baiña lurra landu-bearra etorri zanean, lurgintza sortu zanean, langille bakoitxak bere lurra bear eban lantzeko. Etxeko jauna zan lurraren jabe eta bere semeai lur-arlo biribillak emoten eutsezan, oneik be jabe izan zeitekezan: Lur-arlo biribilla munarri bakarra erdian ebana. Ortik sortu ziran gaur be ezagun diran kortabasoak.

Arrezkero gauzak asko nastatu dira: erriak, auzoak eta eleizeak lur-arlo aundien jabetza artu eben: Or kofradiak eta auzoaren edo erriaren barrutiak ziran arlo audiak. Batzuk ziran lurraren jabeak eta beste batzuk errentariak. Oneik be eskubidea euken baso-zabal orreitan orbela batzeko,ugarria artzeko, abereak ara bialtzeko, gaztaiñak eta batzeko.

Geroago sartu da norberekeri aundiagoa: Erregeak eta lur-jabe aundiak bat egin eben eta arlo ikaragarriak eurentzat artu eta lur-lagilleak jopu lez menpean eta egoera larrian geratu ziran.

Norberekeri aundiagoa sortu da uri aundiak egiteko lurzatiak saldu-bearra etorri danean. Zelako irabaziak ateraten diran lur-zatiak orretarako erosi ta saldu egiten diranean!

Lur jabetza gaur

Gaurko munduan lur-langilleak ez dira lurraren jabe, iñorentzat Ian egiten daben otseñiak edo morroiak dira eta euren lanaren frutua ugazabak eroaten dau, eurak osteralarritasun lotsagarrian bizi dira. Orra or zuzentasunaren aurka dagoan jokabide okerra.

Euskalerrian arazoa ez da ain latza: Lur-jabeak eta errentariak gizabideko artu-emon onak izaten dabez: Errenta txikiak, frutuak langilleenak, errentariak ugazaba-antzekoak dira. Baiña zori txarrez, arazoa larria da mundu zabalean eta edestian zear.

Gure baserritarrak etxerako eta saltzeko zerbait atera izan dabe eta ortik bizi izan dira, baiña gaur lurgintzak aldakuntza aundia izan dau: Langille gitxi batzuk ateraten dabe munduan jateko bear dana eta oneik salneurriak merke ezarteko aukerea dauke. Ordoren lez, baserriko lana ez da gure artean irabazbide ona, ez da bizi izateko naikoa. Eta lantegietan askoz geiago irabazten da. Orregaitik, baserri-lana alboratuta dago.

Aldakuntza-Iegeak

Mundu guztian alegintzen dira agintariak lur-legeak aldatzeko eta edonon sortzen dira "Reforma Agraria" esaten dautsen legeak, baiña alperrik, aberatsak beti urteten dira nagusi eta lur-langilleak euren egoera larrian jarraitzen dabe, zori txarrez.

Gure artean ez dot uste orrelako legerik bear danik, beste batzuk dira gure arazoak: lurretik datozen janarik merkegiak izatea batez be.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagoi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ITXA-ALDE, BAKIOKO DANTZA TALDEA

ITXAS-ALDE Dantza taldea 1972. urtean sortu zan, errian egoan eskabideari erantzun guran sortu be.

Jaio zanetik eta gaur artean, Euskal Kulturea ikastea eta zabaldutea izan dira beraren zereginik andienak.

Taldearen bizkarrazurra Dantza Taldea izan da beti eta olantxe izaten jarraituten dau. Euskal Erri osoko dantzak, musikak eta jantziak jantzita egon dira eta dagoz egon Bakio-ko makina bat gazte eta oraintsu arte gazte izandako. Beste aldetik be, Olentzero, Bakiora leenengoz, ITXAS-ALDERen eskutik etorri jakun. orain dala ogeitaka urte eta arte luzeetan geugaz egiten eban dantza eta abestu. Santa Agedari be urtero gogotsu abestuten geuntson. Sasoi baten, abesbatza eta antzerki taldea be sortu genduzan, taldeari beste neurri andi-ago bat emon guran edo. Talde barruan euskerea indartu eta zabalduteko asmoaz, alfabetatze eta euskalduntzeari be ekin geuntson, KILI-KILren bidez eta laguntzaz, ekin be. Bakion egin izan dan I. Euskal Kultura Asteabe ITXAS-ALDERen eskutik eratua izan zan.

Euskal Kultureari jagokozan ekintzarik ekintza ibiliz, ITXAS-ALDE "Euskal Kultura Taldea" biurtu eta izendatu genduan. Ezin dogu esan barik itzi, bada, Bakio dan erri txi-kerrerako eta gurea izan dan talde apalerako, sano arrakasta-tsuak izan zirala eta dirala egindako aaleginak. Beioakez emetik, bada, joandako ogeita bost urteotan asmo apal a gaur-ko lako talde biurtuten bear egin edota lagundu izan dabenei gure zoriona eta eskerrona!

Gaur egun, ITXAS-ALDE eun lagunetik gorak osotuten dogu, danok gazteak. Taldearen elbururik nagusiena euskal dantzak eta betiko musikak ikastea eta zabaldutea da. Gure "dantzategian" eundik gora euskal dantza egiten badakiguz jakin, Euskal Erriko lurralde guztietakoak, atan be. Dantzaldi eta ekitaldietan euskal musika tresnok erabilten doguz: txis-tua, dultzainea, txirulea, ..., eta baita euskal folkloretik kanpotik gurera etorritakoak be, esate baterako, trikitira, soinue nagusia, panderoa...

Bakioko jaietako ekitaldien ganera, Bizkaiko eta Euskal Erriko beste ainbat tokitara joan izan gara euskal folklore aberatsa erakustera, bai ekitaldi pribatuetan, bai beste talde batzuekaz batera egiten diran dantzaldietan.

ITXAS-ALDEk dauazan elburuetariko beste bat munduko beste kulturak ezagututea eta artuemonak egitea da. Au trukaketen bidez lortu izan dogu. Ori lortuteko, jaialdi nagusi bat eratuten da urtero errian. Atzerritik ona ekarritako taldeen ikustaldien truke, areen errialdera joan aal izan dogu, joan be. Asmo au dala-eta, 1991. urtean asi zan ITXAS-ALDE Euskal Erritik kanpora joaten. Arrezkeroan, Portugal, Frantzia, Errusia, Catalunya, Turkia eta Italian izan gara, euskal nortasuna-ren ikurrina edonon astinduz.

Iniaki MARTIARTU
1998ko urtarrilean

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

ITXAS-ALDEk liburu bat argitaratzeko asmoa dau, taldearen 25 urteu-rrenari amaierea emoteko.

Liburu onetan, 25 urteotan zear egindako lana azaltzen da, ibilbide guz-tiaren ikuspegi orokorra emonez. Egia esateko, Ian andia izan dogu infor-mazinoa lortzeko, batez be, leenengo urteetakoa. Baina andik eta emendik artutako argibideak biribildu eta eran imini ostean, liburua osotzea lortu aal izan dogu.

360 argazki eta ainbat pertsonen eta ekintzen aitamenez taiuturiko lana dogu. Liburuaren aurkibidean agertzen diran atalak oneexek dira: taldearen artean urteko istoria (asikerak, garapena, beeraldia, berbizketea eta goraka-dea), entsaio-tokiak, dantza irakasleak, musikariak, abesbatza eta antzerki saioak, ekitaldi pribatuak, jendaurreko ekitaldiek, euskal jaialdiak, alkar-trukeak eta beste ekintza batzuk be.

Orain, aalegin au egin ostean, ez dogu beste itxaropenik liburua zeuen gogoko izatea baino. Inprimatzaileak berak emondako epeari eutsiko badeutso, Gabon inguruan eskuartean eukiteko aukerea izango dozue.

EUSKALDUN JAYO NINTZAN
EUSKALDUNA AZI,
EUSKARA UTSIK AMAK
EUSTAN IRAKATSI;
EUSKARA MAITE-MAITE
ZABILTZ NEUGAZ BETI,
EUSKARA IL EZKERO
EZ DOT GURA BIZI

FELIPE ARRESE TA BEITIA

BANDEREN ERABILPENA EUSKAL DANTZA ETA OSPAKIZUNETAN

Gure erri guztietan banderea garrantzi andiko gauzea izan dan ezker, erriko banderea, toki askotan ospakizun frankoren ardatza izan da, eta bada oraindikarren.

Askotan, erriko Agintariak errian zear egiten dabezan ibiltaldietan buru izaten da, sarritan dantzariak be tartean dirala. Eukaristi eta erriko Santu Zaindarien aurrean be erabilten da. Bidasoako Bera, Lesaka, Biasteri, Lapurdi eta Nafarroa Beerako erri batzuetan, adibidez.

Zelan agertzen dan? Ba, Lesakan erriko auzune bi alkartzen dauazan zubi ganean. Errioxa aldean, bertako folkloreaken pertsonaiarik garrantzitsuena dan "Katxi"-ren

ganean. Bizkaian, Agintariena dantzatzerakoan, Garain eta Durangalde osoan, esate baterako, euren erriko banderagaz egiten dabe dantza ori.

Bandera areek izaten ebezan buru erriladearen defentsarako prest egon bear izaten eben gudari konpaniek eta sasoi areetako erabilpen areetatik dator gaur egun erri askotan banderakaz egiten diran ospakizun eta desfile ugari.

**Unai Beitia - Artzakoa
ITXAS-ALDEko dantzaria**



Nekazari ernegau bat

Michel Nekazaria bizi zan erneguz,
Bere suerteagaz ez inoz soseguz,
Ez eukalako arek beste egafirik,
Aberats izatea munduan baka ik;
Beti ebiTan nondik arto asko batu,
Al ebana auzoan egiñagaz ostu;
Ziñoan: "nik baneuka ondasun naikoa,
Munduan nintzateke zorionekoa";
Bardin egoanean oyan bere lotan,
Nondik aberastuko ebi len pentsetan;
Itzain bere bazan ta, edo noz bidean,
EbiTan gau ta egun lana eukanean.
Burd bat ikatzagaz bein joian olara,
Logureaz zabuka ezin joan zala;
Bildurturik etzin zan ikatzen gañean,
Idiak ez egien artu ankapean.
An bere laster lotan asten da amesetan,
Betiko aberastu zala bein benetan;
Bilbora etofita ontzi bat eukala,

Beretzako india asko ekarzana;
Eta urtenda gois gois bere base itik,
Gaberako atzera biurtzeagaitik;
Uste eban galopan joiala zaldian,
Aztu zan lo joiala olaruntz burdian;
Ta noz eban siñistu ontzien lekura
Elduta, sartutea dirudun barkura;
Jatsiten zalakoan lu era zalditik,
Michel ameslaria jausi zan burditik;
Eta jausi ez eze arturik burdiak,
Erdibitu eutsazan berna azur biak;
Orduan dazau zelan zoriontasuna,
Gozetako bear dan lenen osasuna;
Eta konturaturik zala kastigua,
Izan eban suerte alako gaiztua;
Diño penaz beterik: "sano banengoke,
¡Ai pobre bizi afen kontentu nintzake!
Osorik daukazan almen ta zentzunak,
Kantau lei daukazala aberastasunak".

Felipe **Arrese ta Beitia**

BALDEGOBIA

Baldegobia euskaldun lurra
nire ametsen kabia
goitik beraiño luze ta zabal
ederra zara maitia;
ipar-aizia da zure itza
bizitza garbiz betia
euzko gizoneti eta andreei
eskeiniz bizitz garbia.

Nora nai adi eder zakusdaz
eguzkiaren azpian
goitik beraiño maitekor zara
lurraren indar guztian
zure mamiñak sendoak dira
lur aberastasunian
gora ta gora Baldegobia
zure bikaintasunian.

Lau aide oro landurik dago
olo eta gariagaz
bizi barria beti eskeintzen
gogo bizi onenagaz;
erri maitiak batian beste
espiritu garbiagaz
Baldegobia sortuten dabe
euren edertasunagaz.

Lurralde ontan zorionean
ba-da lekaide-etxea
euzko gizonak zabaldu daien
Jesukristoren fedea;
Angosto maite! baketsu zagoz
anaitsunez bete
Baldegobiko gizadiari
eskeinduz Jainko berbea.

PAULIN

BIZAR-ZALE TA SEMEA

—Amasei urte dodaz, ta aita maitea,
¿Ez datorkit ederto gaur zugaz yatea?
—¿Zure mayan lekuri niretzat eztozu,
Neskatxeaz jateko esaten daustazu?
Ama gaur kanpoan da, baita amandrea,
Oaten ez dozu gura nik lagundutea?
¿Ez al naz ni benturaz etxeko semea?
¿Bakar baka ik biok egonik etxean,
—Ferminagaz jango dot gaur eskaratzean?
—Ez dakit ori zelan laketuten dozun,
Zer dan gauz (Wen oña nai neuskizu etzun.

—Jakizu, seme Pedro, ondo dan gauzea
Eztala zulakoak aitaz bazkaltzea;
Mosuan urten arte bizar batzuk zuri,
O elango gauzarik ez eskatu niri;
Neuk bere jayo arte biza a mosuan,
Eneban mayan yaten aitaren onduan;
Zuk bere artietan iruntsizu bada,
Eta orduan neugaz jeza iko zara.

Pedro erdi nega ez doa saetera,
Neskatxa Ferminagaz naste bazkaltzera,
Eta joakolako katua atzetik.
Ostikada andi bat emonda bertatik,
Diñotsa: "ua maira gure aitagana.
Mutu ean zergaitik ik doan biza a,
An bizardunak lagun oraiñ egiñ daitzan
I lakoaz zefen nik ez dodan bear jan".

Felipe Arrese ta Beitia

GABON-AGURRA

Adizkideok, bide-lagunok:
Zorion eta agurrak!
Biotz-barrutik opa deusuguz
Asmorik onen... samurrak.
Giza-ereduz, anaitasunez,
Baster daiguzan liskarrak
Bakegilleak, errizaleak...
Ager gaitezen jatorrak.

Gure arloa Euzkadi dogu
Eta ekintza, kultura.
Lagun zakiguz, lortu dagigun
Guztion aske onura.
Erriak Erri eraungo badau
Bearrezkoa mintzaira;
Euskalerrriak, ez dau zentzurik
Galtzen badogu Euskera.

Aurre'tar Anton'ek

GERNIKA'KO ARBOLAPEAN (1991.º SARIA)

Eguzki gainean bizi dan Jaun eta Jabeak izarretan daukan urrezko jauregian bere ondasunak gordeteko kutxa asko ditu: kutxa bat marfilezkoa, bestea zidarrezkoa,• bestea urrezkoa, bestea diamantezkoa... Marfilezkoan JAKITURIA gordeten dau. Zidarrezkoan INDARRA. Urrezkoan EDERTASUNA. Eta diamantezkoan zer ete dauka? Diamantezkoan altxorrik ederrena dauka gordeta, baliotsuena, maitagarriena... Zer ete da? ASKATASUNA.

Eta eguzki gaineko Jaun eta Jabeak, esmeraldazko áiltzaz, diamentezko kutxa zabaldu, barrutik ASKATASUNA atera, eta eskuetan arturik, esan eban:

ASKATASUN maitea!, ez zara zu ezagutua eta maitatua,

baina, bai, kemen eta bizi andikoa.

JAKITURIA zure ondoan ez da ezer...

INDARRAK eta EDERTASUNAK zure aldean ez dabe ezer balio.

Zuk menpekoa nagusi egiten dozu, ez-jakiña jakintsu, eta gizona gizon...

ASKATASUN arribitxi eder ori, zu zara zeru-lurretan aurkitu daitekeen altxorrik bikaiñena...

Baiña lurtarrak ez dabe zure balioa ezagutzen...

Eguzki gaineko Jaun eta Jabeak, izarretako toki zabaletan otsein asko ditu here esanak egiteko.

Eta alango mutil bati deitu, eta esan eutsan:

Otsein zintzoa, eutsi ASKATASUN arribitxi au, eta zoaz gizonak bizi diran lurrera, eta erakutsi egiezu luditarrai zein gauza ederra dan ASKATASUNA.

Eta otsein zintzoak, begiak itxi, eta lainoetatik beera triska-salto egin eban lurrera...

Eta begiak lurrean zabaldu zituanean, azoka-merkatu etxe baten erdian aurkitu zan.

Jendez leporaiño betetako etxe andi, zabal aretan danetatik saldu eta erosten zan: janariak, edariak, jantziak, lan-tresnak, jostailuak, edergailluak...

Entzutekoak ziran ango saltzailleen oivak, bako-txak bere salgaiak aupatzen:

Nire janariak onenak, gozoenak, osasungarrienak!!!

Nire jantziak politenak, merkeenak, ikusgarrienak!!!

Nire lan-tresnak edozer gauza egiteko trebeenak, egokienak!!!

Gure otsein zintzoa be, azoka erdian zutunik, bere ASKATASUNA aupatzen asi zan deadarka:

ASKATASUNA! ASKATASUNA!, nork erosi gura dau ASKATASUNA?

—Zertarako da ASKATASUNA?, itaundu eutsoen.

—Esklaboak aske-libre egiteko. Gizonak gizonago egiteko.

—Eta, zenbat balio dau zure ASKATASUN orrek?

—Munduko une guztiak baiño geiago. Azoka onetan dagozan salgai guztiak baiño karuago.

Au entzunik, an inguruan egozanak barreka asi jakozan, eta gure otsein zintzoa zorotzat artu eban...

Ba ete da, ba, munduan dirua baiño gauza oberik?

Eta gure otsein zintzoak, lur jota, adorea guztiz galduta, azoka-etxe aretatik aide egin eban.

* * *

Joan eta joan, ibilli eta ibilli, gure otsein zintzoa lurralde gorri batera eldu zan...

Bai, ango mendiak, ibaiak eta iturriak, danak, gorriak ziran, guduan ildakoen odolaz gorrituak.

Ondamena, triskantza eta ilketa baino an ez zan ikusten besterik.

Kañoien dunbadak, ametralladoreen taka-takak, leergailluen estandak, oin azpiko luna dardaraka ipinten eban.

Aide batetik gorriak zirala, eta bestetik zuriak, amorru bizian suturik, anaiak euren artean anaiak ilten...

Gure otsein zintzoa, aide bien erdian zutunik, deadarka asi zan:

ASKATASUNA!, ASKATASUNA!, nork erosi gura dau ASKATASUNA?

Baiña dana alperrik. Kañoien dunbadak, ametralladoreen taka-takak, leergailluen estandak, gure otsein zintzoaren oivak ito egiten ebezan.

Gorrotoa, asen-ea eta eriotza nagusi diran tokian, ez dago iñon ASKATASUNARENTZAT lekurik...

Eta otsein zintzoak, amorraturik, inpernuzko lurralde aretatik iges egin eban.

Joan eta joan, ibilli eta ibilli, gure otsein zintzoa urreneko lurralde batera eldu zan.

An, ostera, dana baltza zan. Bai, egia! Ango eguzkia be baliza zan, oso baltza!

Zergaitik ain baltza?

Lurralde aretan, lotsagarri!, Afrika'tik ekarritako esklabo baltzak azokan, abereak lez, saltzen ziralako. Astoa eta esklaboa bardiñak ziran ango esklaboen tratarientzat.

—Zer ezbarditasuna dago asto batetik esklabora?, itaunduten eben esklaboen saltzailleak.

—Astoak ez dakiala itz egiten, eta esklaboak, bai.

Orregaitik lurralde aretan dana zan baltza, ain baltza. Baltzak ziran esklaboak, baiña baltzagoak tratulari zurien biotzak!!!

Gure otsein zintzoa, ikusitakoa ikusiz, ez zan ausartu lurralde aretan, esklabo-errian, ASKATASUNA! oiukatzen.

Eta lotsa-lotsa egiñik, deabruzko lurralde aretatik su-garretan iges egin eban.

Joan eta joan, ibilli eta ibilli, jo eguzki aldera eta jo sartaldera, zoaz ipar aldera eta zoaz ego aldera, eta gure otsein zintzoak ASKATASUNA erosiko leuskion batxo bat be ez eban aurkitu.

Eta adorea guztiz galdu, eta biotz-illun, mendi baten magalean jesarri, eta saminki negarrari emon utsan... Eta bere begietako negar-anguluak iturriko ur garbiaz naasten ziran...

Baiña, ara! Arrigarri! Iturriko ura, bere marmarean, gure otsein zintzoari non berbaz asten jakon!:

—Zergaitik negarrez, otsein zintzo ori?

—Ludi osoa arakatu, eta ASKATASUNA nork erosi aurkitu ez dodalako.

—Ori olan bada ez egin negarrik... Nik ezagutzen dot ludian txoko bat zuri ASKATASUNA pozik erosiko leuskizuna.

—Eta non dago zorioneko txoko ori?

—Zatoz nire atzetik, jarraitu nire ur-bideari. Eta neuk erakutsiko deusut non aurkitzen dan bazter eder ori. Zoragarria da, benetan. Paradisua dirudi.

Eta ur-lasterrari jarraituz, ibilli eta ibilli, gure otsein zintzoa Bizkai'ko biotzean, Gernikako uriaren aurrean aukitu zan.

Egin-eginean be, Bizkai'ko Batzar Nagusia Gernika'n batzeko garaia zan.

An egozan Gemika'ko arbolapean Bizkai'ko errietako Agintariak, euren kapa baltzakaz, aginte-makillak eskuetan... Baita an aurkitzen ziran beste bizkaitar eta euskaldun asko be, Euskal Herriko lau aldeetatik etorriak.

Agintarien omenez dantzari gazte batek aurrezkua dantzatu eban... Eta gero, aurrezkua amaitu, eta txistua ixildu zanean, gure otsein zintzoa arbolapera urre-ratu, eta eztarri betean oiuka asi zan:

ASKATASUNA!, ASKATASUNA!, nork erosi gura dau ASKATASUNA!!!

ASKATASUNA!, entzun ebenean Gernika'ko arbolapean aurkitzen ziran guztiak: agintariak eta menpekoak, zaarrak eta gazteak, ago batez, deadarka asi ziran:

ASKATASUNA!, ASKATASUNA!, ASKATASUNA!!!

Eta ASKATASUNA!, deadarraren oiartzuna, mendiz-mendi, trumoi baten antzera, Euskal Herriko azken mugataraiño zabaldu zan.

Eta onetan laiño baltzak urratu, eta Gernika gainean eguzkia bere edertasun betean agertu zan, eta arbolapean egozanak indar guztiaz asi ziran abesten:

ASKATASUN EGUZKIA zerutik urten da,
bere argi edonon arin zabaltzen da.

Orduan, Batzar Nagusiko Lendakariak Gernika'ko arbolapean zutunik, onela zin egin eban:

Jainkoaren aurrean apalik, Euskal lurrean zutik,
Gernika'ko arbolapean, asaben gomutaz,
ASKATASUNA zaindu, gorde eta babestea,
zin dagit!!!

Eta erri osoak uriola orroaren antzera errepikatu eban:

Zin dagigu!!!

Eta Euskal Herriko mendi, ibar eta errietan irrintzi bat entzun zan:

Esklabo bizi baiño, il gurago!!!

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI



BIZKAI'KO EUSKEREAREN LABURPENAK

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EUSKAL-ASTEAN ITZALDIA

(1997-12-05)

Ekonomia

Jaun-andreok: Arratsaldeon eta ondo etorriak Bizkai'ko euskereari buruz egin nai dogun alkar-izketa onetara.

Asteko, arrigarri izan leiketzuen itaun bat egingo dot: Zer da ekonomia? Eta erantzuna emon be bai: Elburua lortzeko (diruz naiz alegiñez) egin bear diran eralketak neurtzeko bidea.

Eta ona euren orain zergaitik egin dodan itaun ori: Izkuntzaren elburua, bakoitxaren barruko zomaketak eta pentsaketak agertzea da. Eta elburu ori lortzeko bakoitxak alegiñak egiten dauz eralketarik gitxien egiteko, etxeko andra batek bere otsarea beteteko al dauanik eta gasturik gitxien egiten dauan lez.

Izkuntza guztietan dago ekonomi-jokera au, guztiak gura dabe al danik agotsik eta agokaldirik gitxienez euren barrua azaltzea. Orregaitik izkuntza guztiak egiten dabez berba egikeran laburpenak. Orra or non kokatzen dan itzaldi onen muiña: Euskereak, batez be Bizkai'ko euskereak, alegiñaren ekonomirako, laburpenak egiten dauz.

Jokabide orokorra

Ekonomi-jokabide au, lenengo ta bein, ez da euskerearena bakarrik, izkuntza guztiena da, batzuk izkuntzaren edestian laburtzen dabez berbak beste batzuk eguneroko berbetan. Euskereak egunerokoan laburtzen dau. (Sinkronia ta diakronia esaten dautsoe arazo oneri).

Esaterako latiñetik latinkumeetara igaro garanean, laburpenak egin dira iru aukaldigaz edo silabagaz esan da, sarritan, len laugaz esaten zana: Capitulum-cabildo, especulum-espejo, mulierem-mujer, amabilem-amable.

Latinkumeak edestian egin dabez laburpenak, eta gaurko izkuntzak ez dabe ainbeste laburtzen. Portugaleran, gazteleran, katalunieran, italieran eta abar, ez da asko laburtzen. Gastelera esaterako "al lado" esan bearrean "alao" esaten da. Baiña olako laburpen gitxi dagoz. Frantzeran ostera, latinkumea izan arren,

laburpen geiago egiten da, esaterako gure Larrazabala-Larcevaux biurtzen da eta diakronian edo edestian "capillun" izan dana "cheveux". Latinkumeak ez diranetan be ez dago batera jokatzetik: Germanierak gitxi laburtzen dau eta anglanderak, ostera, Bizkai'ko euskerearen beste inguru, %40 inguru bear ba'da.

Bizkai'ko euskerearen jokabidea

Beste inkuntzetan aurkitzen dogun jokabide ori, naiz diakronian naiz sinkronian, ete daukagu euskeran? Euskaldunok egiten ete dogu ezer berba egitea gitxiago kosta dakigun? Bai eta asko egin be. Gaur ikusiko dogu arazo au laburpenetan eta urrengo itzaldian agozkeretan.

Arazo au errezero ulertzeko Jose Antonio Retolaza'ri entzundako jazokizun bat edestuko dot.

Jose Antonio Gipuzkoa'ko tolosarantza joian bere berebillean neska gazte bategaz eta bere aldamean joian neskeari itaun au egin eutsan: — Tolosa urrin dago? Eta neskeak erantzun eutson: Ez. beta dago.

Jose Antonio adiskideak ez eban ulertu aldi aretan "beela" edo "bela" zer izan zeitekean, neskeak azaldu eutson: "bereala" zan berba osoa eta orrela bai, orrelan ulertzen eban.

Orra or Gipuzkoa'n egiten dan laburpen bat, adilyide lez.

Euskalki guztiak egiten dabez laburpenak baiña bizkaiereak geien. Nik este dot guk berba egiten dogunean %40 inguru jaten dogula berbea. Esaterako "egin dogu" esateko lau agokaldi daukaguz, baiña Bizkai'rik geienean, "inju" esaten dogu, agokaldi bigaz, eta agotsak zenbatu ezker, "egin dogu" zortzi agots dira eta "inju" lau baiño ez.

Laburpenak zeintzuk bizkaieran

Agotzak laburtukeran euskereak arau zeatz batzuk beteten dauz. Uste dot beste ikuntzetan be orrelan izaten dala eta legeak be bardiñak dirala, baiña ori ziurtatzeak gaur urriffegi eroango gendukez. Jarraitu

daigun euskeran laburpenak noiz eta zelan egiten diran aztertzen.

Azadu daigun labur agots gogorak eta gozoak zer diran. Gogorak zaratarik ez dauke eta ondo ebagita dagoz: P, T, K. esaterako. Gozoak ostera, zaratea dauke eta ez dira ain zeatz ebagiak: B, D, G. Ortik atera geinke arau zeatz bat: Gogorak ez dira galtzen, gozoak errez galtzen dira. Esaterako: "Ekin" ez da inoiz laburtzen, "egin" ostera bai: "ein" edo "in" biurtzen da. Eta olako laburpenak asko dira euskeran, azkenean aztertuko dogun idazkian ikusiko dogun lez. Orduan, laburpenak egiteko bide zabal bat agots gozoak, sonorak, kentzea da.

Zergaitik egiten da laburpen ori? Aurrean eta ostean dauan agots bakartiak jan egiten daualako agots gozo ori.

Beste laburpen bat agots bakartien artean, bokalen artean egiten da. Bakarti idegiak zarratzera eta zarratuak kentzera doa bide ori. Esaterako, Ondarroa'n "etxea" esan-bearrean "etxi" esaten dabe. Iru agokaldi izan diran lekuan bi geratu dira, ekonomia egin da. Zer da jazo dana? Bakartian, bokalen itxitea lenengo ta galtzea gero: "Etxea-etxia, etxie, etxi".

Beste laburpen-bide bat surreratuena edo nasalena da. M, N, N dira oneik.

Laburpena egikeran emen zur jokutzen dabe euskaldunak. N ori ondo ulertzeko bear danean ez da kentzen inoiz be, bear-bearrekoa ez danean, ostera kendu egiten da. Diakronian edo edestian: "Catena-Katea", "Campana-Kanpaea", "Gaztana-gaztaea". "Ardana-ardaoa". Eta gaur bertan toki izenetan: "Lemona-Lemoa", "Laukiniz-Laukiz".

Arau au ez da ain zeatza eta batzutan ez da beteten. Esaterako "edan egizu" laburtu eta "edaxu" geratzen da.

Beste laburpen arrigarri bat egiten dogu Bizkai'ko euskeran. Ez dakit noiztik, ez dakit zergaitik. Aditz laguntzailleari zati bat kentzea da laburpen au: "Esan dautsut-Esantzut", "Ikusiko dozu-ikuskozu". Laburpen au arrigarria dala esan dot eta alan da. Emen ez da albo-bakartia, itzaren erdia jaten dauana. Emen ez dakigu nondik etorri dan laburpen ori egiteko baimena. Baiña bai ekonomi tamalgarria dala benetan: "Dautzut" esaten dogunean or aditz-zati oneik daukaguz: d-egozkizun zuzena, au-aldi ezaugarria, tzu-nori adizkia eta t-adjabearren ezaugarria. "Dau" kentzeagaz asko galtzen dau iztat, baiña ez daigun aitzu izkuntzan erria dala agintari.

Sortzen dira arazoak

Laburpen oneik ekonomiaren eskariak dirala esan dogu, berbetea errezagoa izateko erriak eskatzen dau-

zan gauzak. Labur-labur, laburregi bear ba'da, agertu doguz ondorenak. Orain beste itaun bateri erantzun bear dautsagu. Laburpen oneik euskereari kalte ala mesede egiten dautsoe? Jakiña, erosketa egitera doan otzaradunak gauza onak, politak eta merkeak gura dauz, baiña ezin lortu ori. Geienetan merkea dana edo ez da polita edo ez da ona.

Orrelantxe jazoten jaku izkuntzan be. Euskerea errezagoe egitea, berba laburragoak, agots gozoagoak, eukitea lortzen dogu, beste gauza on asko galdua.

Lenengo ta bein euskerea ulergatx biurtzen da, laburpenak egikeran len berba bi izan diranak bat biurtzen diralako. Esterako nik itauntzen ba dautzuet "eurie" zer dan, arin erantzungo daustazue: "Ortzitik jausten diran tangadak". Orain ona euren esaldi bi: "bart **eurie** ein jok", "jake au eurie dok, ez nirie".

Eta uler gatx izate an, batez be beste euskalki bat darabilenakaz jazoten da. Gogoratu len aitatu dogun Retolaza'ren jazokizuna. "Bereala" zer zan ulertu eban, ez, ostera, "beela". Giputzak laburpen gitxiago daukez eta orregaitik guk errezagoe ulertzen dogu gipuzkoera, bizkaitarrak, ostera, laburpen asko egiten dogulako, euskera gatxagoa egiten dogu eurentzat.

Eta Bizkaia'n bertan be, arratiar batek, batez be asieran, gaixtasun batzuk izaten dauz bermeotarrari edo ondarrutarrari ulertzeko. Laburpenakaz batera doa agotsen aldaketa-arazoa, baiña ori beste egun baten aztertuko dogu.

Beste ondoren txar bat auxe da: Euskereak dauzan edertasunak asko galdu egiten dirala, aditzaren laburpenean, esan dogun lez. Geiagoe be esan geinke: Latiñak olako aldakuntzat izan ebazalako, laburpenak egin ebazalako, latinkumeak sortu ziran eta latiña il egin zan. Izkuntza esaten dautsagu latiñari, naizta, izkuntzalarien ustez, latiña bere umeengan bizi izan. Orra or bein baten Patxi Altuna'gaz Iruña'n erri-aurreko Ikastetxe Nagusian nik izandako eztabaidearen oiñarria. Latiña il zala esan nebalako, asarre bizian aurkeztu jatan, latiña bizi dala esanez. Bai, izkuntzalarietzat, baiña erri-maillan izkuntza esaten jako eta zeozergaitik esan be. Euskereak be laburpen eta aldakuntza oneik egiteagaz olako arriskuren bat izan leike, euskalkiak alkarrengandik urrindu eta izkuntza zatitu.

Zer egin bear dogun

Ikusi dogu berbaldi labur onetan, ekonomia oiñarria dala, izkuntzak dauken laburtzera jokerea, sinkronian eta diakronian. Ikusi dogu, Bizkai'ko euskerea arlo orretan nondik nora doan eta jokabide orrek sortzen dauzan arazoak zeintzuk diran. Orain esan dagi-

EUSKAL-ASTEA

gun zer egin bear geunken. Arlo onetan izango dira beste eritxi batzuk eta alkar-izketan agertuko dira bear ba'da.

Itauna au litzake: Guk zelan egin bear dogu berba? Laburpenakaz eta agots aldatuakaz ala idazten dogun antzera?

Lau arau ipiñiko dodaz emen:

1^a.- Senide, adiskide eta erritarren artean berba egiten dogunean, bertan egiten dan lez egin, Bermeo'n Bermeo'koa, Arratia'n Arratiakoa eta Ondorroa'n Ondorroa'koa. Orrelan egin ezik, arrokeria agertzen dogu eta ez da izaten entzuleen pozerako.

2^a.- Beste euskaldi bateko euskaldunen artean berba egiten dogunean, bizkaera garbia, idazten dan lakoa erabilli, bizkaiera apaindua.

3^d.- Erri-aurrean, ETB'n, idazterakoan, beti bizkaiera apaindua erabilli.

4ⁿ.- Beste euskalki bateko euskaldunen aurrean ez dogu erabilli bear euren euskalkia. Gu Bizkai'tarrok orretan lotsatiak izaten gara, gure bizkaiera ez dala polita uste izateraiño edo giputzak ez dauskuela ulertzen pentsatzeraiño. Egin daigun berba bizkaieraz, baiña bizkaiera apaindua, idazten dogun bizkaiera, erabiliz. Giputzak naiz laburditarrak naiz Zubero'tarrak arrituta geratuko dira ain errez ulertzen dauskuelako. Ez da bear euskera baturik, baikoitxak bere euskalkia landu ezkeru, guztiok eta errez alkar ulertzen dogu.

Eta orain, amaitzeko, artu daigun Bermeo'ko euskeraz dagoan zatitxu bat eta billatu daiguzan laburpenak. Gaurkoz ez agots-aldaketak. Ori beste egun baterako itzi daigun:

BITXORI'k: Ene semie...! Auri da noperak baiño geujau jakin gurie! Tiek dako erru guztije; baie ikus-

ko dau arek ondiño... ie nok etxen tson arenadurie bera gaixorik dauenien. Topa birko dau nok eiñ, beti-beti neure kontra oteko!

FELIX'ek: Zeure mando oten dala ezu esan urrungen ba?

BITXORI'k: Bai berari konbeniten jakonien. Aurduen be... imie jagoten oki nau ni arek, gaueko zortziretararte frabiketik bera otorri arte.

Auri: ara ori.
geijau-geiago.
Ikusko-Ikusiko
ondiño-oraindiño.
etxen-egiten
tson dautson.
dauenien-dagoenean
birko-bearko
eiñ-egin
oteko-egoteko
otenen-egoten
ezu-ez dozu
Aurduen-ara orduan.

Bizkaiera idatziz:

Ene semea, ara, ori da norberak baiño geiago jakin gurea! Tiak dauko erru guztia, baiña ikusiko dau arek oraindiño ea nok egiten dautson arenadurea bera gaisorik dagoanean. Topau bearo dau nok egin, beti-beti neure kontra egoteko. Zeure bando egoten dala ez dozu esan urrengoan ba! Bai berari konbeniten jakonean. Ara orduan be umea jagoten euki nau ni arek gaueko zortziretara artefabrikatik bera etorri arte.

Olazar'tar Martin

EUSKEREA

Eun da berrogei ta amar aldra izkuntza dagoz lurrean alkarren kide ta jakituriz euren era onenean; munduan diran jakintsu jaunak dabilnaz lan ederrean izkuntz guztiei euren tokia emonik lur zabalean.

Gure izkuntzak dagokonez ba-dau beretzat lekua danen artean bostgarren dago txairo txairo tajutua; berak bakarrik osotuten dau leku berebizikua, agur euskara, agur Euzkadi itzez zorionekua.

Bere izatez izkuntz ederra jakitunak onarturik, hegira nor dan Euskalerria edertasunez jantzirik, buru ta biotz agertzen ditu gizonak itzen bidetik bana banako izkuntza lora gizartera zabaldurik.

Paulin

GIZA SORTZE

Giza-soiñak, bere berezitasunak ta bizitzarako bearrezkoak diran giza-emakumeen kuntze-bidezko artuemanak aide batetik, ta ondoren seksu bien loturak ta jarrai bide ezaguna daben seme-alaben ondorio pizgarriak bestetik erabillez, millaka urtetik ona gizaki guztiei misteriozko zertxo bat bazelako zirrada bat emon dautse. Ta ez da arritzekoa. Jainkoaren ezkutu bat erreztasunez adieraztea gura geunke, ta ezkutu-misterioak ezin bait dira ain errez azaldu.

Orain argibidea emon gura geunke azalduz maite-grifla dalakoa zertan dagoan uste dogun bidez esanaz; ta lizunkeria naiz pornografia zertan datzan al doten eran erakutsiz edo ikus-araziz.

Bata, maite-griña, erotismo gazteleraz, errien zentzunez seksu bidezko diran zerekaz batu oi da. Ez da baiña arimaren, gogoaren aurkako sentipena. Berezkoa baizik, ta ez obenik, pekaturik ezartzekoa litzakenik ain zuzen. Beste, lizunkeria, gizakumeen makurkeri bat bezelatxe dala erri guztiari deritxo, ta ortik jarraitu leitekezen kuntzezko bidegabekeriak ez ditu iñola be onartuko.

Morala bat ta beti bardiña al da? Zuzenlegea bai, Jainkoaren eritxian bat da, baiña gizakien erabilkeran aldizaldiko ta lekuan-lekuko goraberak ditu.

Au laburkiro adieraztea gatxa da. Alan da be Jainkoak borondate ona eskatu oi dausku ta orrela aldien, sasoi goraberan kuntzearen bideetan ondo jokatu geinke.

Aldiak bai aldatu dira. Orain 25 urte edo, ikusteko zillagi ez zana (oraingo jendeen ikuspenari so-egiñez) olan, orduko "gilda" eta bere itxurazko pelikulak txarrak bezala begiztatzen ziranez; orain barregarriak geientzat izango litzakez, ta gizaldi bat baiño gitxiago ez bait da igaro. Zer esan milla bat urte igaro balitzaz! Emen beste zeretan lez zentzuna ez dogu galdu bear, ta barrua, (conciencia) arteza, zuzena izan, ta gaur eguneko gizadiaren ta eleizaren bideak jarraitu, ta beti borondate onenaz erdi bidetik iraun. Au da arau errezena ta ziurrena nire iritxiz egungo eguntan.

Arregi'tar Joseba (1985)

KOLDO GUZURTIA

Bartolo, mutil arro ta guzurtia zan. Beiñola, bere adizkide Koldo'gaz basora joan zan. Baserri baten ondolik igarotean.

—Ene!, esan eban Koldo'k, or'ek bai aza andiak.

—Ori ezta ezer, erantzun eutson beingoan Bartolo'k. Nik, bein baten, abadearen etxea baiño aza andiaieoa ikusi neban.

Ez eban ezer esan Koldo'k, bere laguna ondo eza gutzen eban ta...

Basotik errira biurtu ziranean, eleizaurrean geratu ziran. Alako baten, Koldo'k esan eban:

—Nire aitak, beiñola, lapiko andi-andi bat egin eban, eleiza ori baiño andiagoa.

—Eziña da, erantzun eutson Bartolo'k. Zetarako gura eban alako lapikoa?

—Zuk ikusi zenduan aza andia egosteko, esan eutson barrera Koldo'k.

X. Peña'k

"Euskaerazaleak" en ikas-luburan

TXOMIN ETA IÑAKI

—Iñaki ta Txomin 8 ta 7 urteko lagunak ziran.

Baiña mutil onak izan-arren, noizean bein, augaitik edo besteagaitik ba-ekien burrukan egiten...

Beiñola, oi eben lez, alkarregaz etozan ikastolatik etxerantza. Alako baten, intxaur eder bat ikusi eban Iñaki'k bide bazterrean. Baiña Txomin'ek ariñago loan eta beretzat artu eban. Orduan, gogor asi ziran burrukan, biak intxaurra jan guraz. Alan ebiltzala, jaun gazte bat etorri zan eurekana:

—Zer daukazue, olan bultzaka ta joka ibilteko?

Eta mutillak, jazoten yakena esan eben. Orduan, jaun gazte arek, mutil bieie entzun ondoren, intxaurra artu erdirik, idigi ta onetara amaitu eban burrukea:

—Intxaurraren azal-erdi zuretzat, Iñaki, zeuk lenengo ikusi dozulako; beste azal-erdi au zuretzat, Txomin, lurretik zeuk jaso dozulako; eta intxaurra nirentzat, andiena neu nazalako.

"Euskerazaleak" en ikas-liburuan

KURUTZE-BIDEA

Kurutzetik bizira

Euskalerria "beltzak eta txuriak" ikusita zegoen; zapaldua, zanpatua, larrutua, bere aragi-zatiak munduan zear sakanatuak...

Gurutz-bide latza.

Baiña 25 urte-buruan gizaldi gazte berri bat zijoen sendotzen biziari begira. Eriotzak ez du azken-itza.

Ostiral Santua ez da azken elmuga.

Per crucem ad lucem: gurutzetik argira. Berria ere, Pazko-egunak. Berriz ere Piztuera-egunak...

"Jaunak egin zitun Zeruak eta Luna. Lurra zegoen utsik eta ergel... Et Spiritus Dei ferebatur super aquas: eta Jaunaren Atsa, Jaunaren Espiritua, ur-gaiñetik zijoen...". Urak kokatzen zitun, ollalokak arrautzak kokatzen dituen antzeri...

Eta Bizia leertu zan Izaki osoaren gaiñean.

Eriotzak bere garaipena okerraren bidetik lortu zuen: Maitasunak, ordea, Biziazen aide jokatzen du beti eta batez ere Gurutz-enborrean; antxe garaitu du Eriotza bein-betiko.

Gizakia gurutz-bidean joan arren, ez du itxaropenik galdu. Biziak Eriotza menperatu bait du. Bizirako gera Jesusen maitasunari esker. Inun maitasunik agertu ba'digu, Gurutz-bidean ere bai.

Orra Gurutz-bidearen azken arrazoia.

Anes (1964)

1. ² Egotaldia

"Pilatok agindu du lapurren artean iltzez gogor josteko Jesus gurutzean".

Kristorenak egin du. Gizonak Jainkoa menperatuta eriotzara darama. Kristo, aide guretik.

erritarrok zure bearrrik ez degu. Zesar degu errege. Urrea ta Gorrotoa gure lege. Eraman guretik. kendu aurretik.

Kendu. kendu. Areago oraindik: kendu eta il. Barrabas nai degu bere orde. Gizon onetan erurrik ikusten ez det.

Ecce Horno: ara Gizona emen. Buruan koroia arantzetan, bizkar gaiñean purpura gorria, malko-odolez

begiak, aurpegian errukia. Zuena da. Eraman iltzera. Kendu, kendu. Gurutzer, bere bearrrik ez degu. Betor bere odola gure burn gaiñera.

Ura Pilatoren esku-artetik jarrio. Orrua eta marmarra erriak dario... Eskuak garbitzea alperrik da, Ponzio.

Nicaragua, Guatemala, Vietnam eta Chad. Gernika, erri xumeak gurutzer beartuak, zapalduak Goliat aundiaren oinpean zanpatuak... Nork du errua? Pilatok bizirik dirau gizaldietan zear. – Tok, eraman gurutz au argala aizelako

indarge aizelako txiroa aizelako txikia aizelako... Zuzenbidea ori dok. Indarraren zuzenbidea errugabeko zuzenbidea bakarra indarra. Mundu onetan besterik ez da. Bestean oberik izanzen al da Gizonaren semeak bere gurutza eraman ondoren. Amen

II

"Sorbalan dualarik gurutze astuna iltzera badijoa Jesus gure jauna".

Jesusen aurrean gurutza beso-zabal, Paraisoko zugatzaren erraiñu eta itzal. Adanen aoan goxo Jesusenean garratz.

Zeru-lurrean artean osin beltz pekatuaren esi-gabeko indarrez.

Bitarteko zubia gurutz ankerra lapur eraille gaizto guzientzako zigortzaille.

Jesusen lepo gaiñean gizonen pekatuak. Bera pekatarien artean pekatariena.

Zatozkit, gurutzea, amesgarririk onena betiraun guzitik bioz-muiñean gordea...

Luze, gogor, lodi bizkarra ebagitzen duan gurutz astun on... Zer neke etengabea guruzpean dijoan gizonari.

Bakarrik zoak. Jauna, bakarrik. Ez al dezu bear lagunik? Nere gurutza eramateko izango dut zure bearrrik.

III

"Lurrera erortzen da Jesus nekatuak altxatzen laguntzeko ez da errukirik".

"Aun-era". Jendetzaren artean, ibai arrotua iduri, Jesusen gurutza Kalbario bidean.

Lepotik sokamuturra, animalien antzera, balantzaka, jo du lurra.

Zer diozu, Jauna? Lurrean zaude ta arpegia autsetan, gurutz astuna gaiñean.

Zer usain du zure eskuen artetik sortutako Lurrak? Erori zera ustegabeen bi belaunez kale ertzean Kalbario bidean erriaren kaltez...

Pekatuaren astuna, milla kintaleko beruna.

Azpian zapalduta
Jainko Jauna.

Ama Luna.
Jesusen erantzuna.
atseden apurra
neretzat.
hesterik ez dut
une onetan.

Biziaren sortzea
darama
bete-betea.
II eta ohiratzea
bearrezkoa,
lenengo epea.

Soldaduaren zigorra
belarri ondoan,
zekena, gogorra,
erruki gabea.
erraiak arrizkoak.
Atsedetik ez da Zuretzat.
Jeiki adi. Giza-semea.
Kalbario bidea,
lertu araztekoa.

IV

"Agartzen zaio Ama
negarrez bidean.
Ai zer samintasunak
bien biotzean".

Seme bakarraren ama
gaixoa,
gogorra semetxoaren
azken-ordua.
Ezpañak legor. sua
bekokian,
milla gauza mesilla
gaiñean:
pastillak, ura,
tennometroa...
Eriotzaren arpegi eroa.

Jantzi zapatatxoak
barruko erropatxoak aldatu.
Nere semetxo
lurperatu nai duen gizona
badator
zeken-alena.
Agur betiko
nere aragiaren
zatirik gurena.

Ama Maria kale-ertzean
maitekor,
begiak uts. ao-zapaia legor.
– Nere semea ba'letor...
– Ara an, badator,
gurutzepean zapal.
odol-izardi tapatz.

Amaren begiak lauso,
aurrez-aurre
here semea dakuzte...
Begiak alkartu,
aoak ixildu,
besoak zabaldu,
matrallak estatu.

Amaren biotza urduri,
Jaunaren aurrean ixil,
zazpi ezpatez josirik,
zazpirak maitez arturik.

– Jainko zuzena,
emen zure Semea.
Bete bedi neregan
zure horondatea.

Ama errukigarriak
malkoz beterik begiak,
samiña gaiñezka
bere biotz barrenean,
itzik ez mingaiñean.

V

"Simon zirinetarra
artzen dute lagun.
gurutza eramatzen
ikasi dezagun."

Jainko-semea
aurrera dijoa,
baiña here bidea
ez da luzarokoa.

Ankak mekalduta,
arnasa galduta.
geiago eziñik,
geldirik...

– Jainko alguztiduna
indarrik gabea.
arlotte eskalea,
begirakuna
larria zurea...
Nere indarraren
hear zerala zu?
Au nere zoruna,
Zirinetarra dut
laguna.

Baiña Jesus,
bizkarrean daramat nik ere
gurutze astuna,
ularra amasik gabe
doi-doi nere belaunak.
Nere zireneo ba'zera
ordea
bildur gabe noa
tontorrean gora
zure bidean.
Nere gurutzepean

zure erraiñoa
dijoa.
Zurekin batera
goazen aurrera.

VI

"Pekataria nun da
zure errukia
Jesusi garbitzeko
malkoz arpegia".

Apostoluak
bildurak ditu
sakananatu.
Pedro beberak
Jauna du
ukatu.

Eriotz-egarritzko
jende artean,
emakume bakar bat
bildur gabea.
Jesusengana dator
eskuetan zapia
bedietan argia
bildurgabean gogor.

Menperatzen bildurkeria
eiguzu lagun. Beronika.

Kristo itxurra besterik
badela

sinisten dutenak
ondo astertzu dezatela
beuroen pausoak,
etzaiela paltako
maxiatzaille naikoak
ez bait dira
munduarentzako
guztokoak.

Kristoren seiñale dute
aurpegiari,
seiñale txarra da-ta
kontuz erabili.

Beronika andrea,
nun den zapi zuria,
zapi orretan gordea
Kristoren aurpegia?
Jarrizaiguzu begien
aurrean
beg ira-hegira ase gaitzezean.

Jainko altsuaren antz-irudia
gure malko, odol. txistuz
betia,
zaitez betirako gure bizia.

VII

"Ludiko pekatuen
astunaren aundiz

gurutzepean Jesus
erortzen da berriz".

Ez da kulpable arria
ez soka-muturra.
Bigarrenez eroria,
animak du errua,
indarra palta
barruan.

Bizitz-erdiko
erori-aldia.
Bidea luze
argirik ez.
Legor biotza
bakardadean,
basamortua
ingumarian.

Nekez, aspertu
bide luzean,
lurra jo degu
bat-batean.

Gorpuarekin batera
gogoa zaigu lurrera.

Aspertuaren pekatua,
bide-erdiko errua.
Asieratik urrun
hukaerarik ez dakus.
Ai ene hiotz,
lurra jo degu aoz.

Jauna. erruki
nere bigarren
erorri aldi.
Bizitz-erdiko pekatu,
aspertuaren erru.
jauna, barkatu.

VIII

"Jerusalemgo alabak
ez neri negarrik,
negar egin zazute
pekatuagaitik".
x *y

Mendi gaiñera
eltzerako
gelditu da Jesus.
Emakumeak
bidean ertzeko.
Malko samiñak:
– Jauna, zer diozue?
– Ez neri negarrik.
– Zeiñeri bada?
Odolez josirik
begiak
illun dituzu.
iturri biziak
legortu
zaizkizu.

Aurpegiari
eriotza damazu.

Egia.
Neke artean
bear da
pekatuaren beltza
garbitu,
Jainkoak
ala nai eta.
Nere nekeak
ez dira gezurrezkoak.
Pekatuaren ordaifia,
zerutik jetxi eta
gurutzera igo bean-a.
Arbola bizia naizela
narama Aitak onela.
Nolako suertea
izanen ote du
arbola igarrak.
Pekataria tristea
negar egizu.

IX

"Ainbeste neke-miñez
aul egiñik Jauna
irugarren aldian
emen jo du lurra"
*xs

Irugarrenez, pekatu.
Gau-illuneko
nere irugarrena.
Galdu dut
itxaropena.

Nere gorputzeko
aragiak nau
menperatu
ta zapaldu.
Aspertu naiz,
nekatu.

Gauden auspez
lurrean
gurutzpean,
arrezago bait da
gurutz gaiñean
baiño.
Argia galduta
gau illunean
naco.

Gaitz-erdi
oraindik
eriotza urrun
badago.
Zatozkit,
Jauna,
nazazu jeiki
eriotza baiño
lenago.

GARIZUMEA

X

"Ludiaren aurrean
jantziak kendurik
or dago Jesus ona
oso lotsaturik".

Arri-gaiñean
jota
gari-alea
narru-gorri.

Mendi-tontorrean
zutik
soiñekoa lurrean
Jesus maitea
aragi - utsik.
Jantziak
kendu ondoren
zurekin dituzu

odol- arrasto
zauriak...
Ez dezu
beste jantzirik.

— Zein parregarritzkoa
zuen Jainkoa,
eroa ote da
odol- zauriz josirik?

Jauna izkutuan da
gizona argiratu,
Jainkoa ikusi ez da
aragia azaldu.
Orra Giza-semea
mallo negarrez beteaz,
lotzak sumindua,
zauriz urratua
anaia gurea...

Iñoren mendean
estututa
dabillan gizonari
izan, Jauna,
erruki.

Eskeiñi diote droga
lo artzekoa
gurutz-erik
zorabio
sortzean
eraman aldezan...

— Esker milla,
ongille zerate
baiña
lo-gairik ez
mesedez,
billusik naramate
eta erio samiña
jaso bear
ene animak...

Or ditut ikusten
kordarik gabe,
etengabeko
multos,
etzanik loietan,
txerrien antzo,
arima galdu
begiaklauso,
gogo -barnean
laño
beltz
illun,
argigabeko inpernu gorri,
edari mallo
garratz,
nazka, nazka, nazka
olatuetan
uin
itogarri
sekulo -sekulotan...

Esklabu dituzu
mingaiñean
askatasuna garraxi
badute ere.
Jaun nagusi
zital baten menpean
ezkerrakin kili-kili
eskubiakin
latigoz erre.

Inpernu lurrean
drogaren menpean
agoniarik
larrienean
itxaropenik
gabeko
gau luzcan...

Nere miñaren miñez
eta samiñaren samiñez
izanen aldu
zenbaitek
inpernu ortako orma
latzeetan gora
irteteko kementa.

XI

"Gurutziltzatu dute
zañak urraturik
ezurak askatuaz
bere giltzetatik".

Jesus lur- gaiñean
dan bezin luzea.
Bere neurria
gurutzea.
Emendik ona,
dio soldaduak.
Neurri motza
neurri zurea,
gizonezkoena.

Jainko neurrigabea
giza neurriz
neurtu,
baztarrik gabea
gurutzari
Totu...
Maitasunak
ez dezakenik
ez da oraindik
sortu.

Zaude neurturik,
esiva zure inguruan
iltze gogorra
burnizkoa.
Goi-gaiñetik
buru-koroiean
arantza mingorra
larrezkoa.

Etzanda zaude,
ogea aukeratu dezu
estaietakoa:
or dezu alkartzen
Jainkoarekin
Gizonezkoa.
Errege zera
betirakoa.
zure eserlakua
zure eserlekua
egurrezkoa.
Josi dizute eskua
eskubikoa,
zeru -lurrak
egitekoak;
anak ere bai
zorionekoak
mendirik-mendi
Berri-ona
zabaltzekoak.

Zaude iltzen josirik,
es dezu eskapatzerik.

Ez det iges egingo.
Jainkoa
josiko duten iltzerik
ez dago,
Maitasuna besterik.

Nun billa nezake
Jainkorik
zu bezelakorik?

Iltzeak
ankerrak
aragia
guretzean
josia
gogor
gogor
gogorrean

estu
estu
estutasunean
aragi josiak
ezurak ausiak
miñaren zorabioa
erdiko gunean
burud-garunean.

Eskuak
eta
oiñak
zuloak
etenak
eusiak
kirioak
leertu bearrean.
Lau zauri
lau iturri
burni
guri
lau erreka
mingarri,
lau kate
negargarri...
Zure askatasunaren
illobi
zure eriotzaren
ezaugarri.

Lotura estuak
itoak,
egoak
moztuak,
egoak
lotuak
ganbarako abe zaarrean
xagu-zarra
josten dan moduan.
Eriotzaren ipur-aulki
urdaillaren agoan
pekatuaren pixua
biotzaren gaiñean,
askatasuna
zanpata
eta aurrean
irriparraren agin zuriak:
— Jetxi adi
jetxi adi
aal baduk.
aska adi
aska adi
aal baduk,
besteak
salbatzea
ez duk
aski,
salbatzaille iñozu.

— Eskuak aska ezin
biotza lotua danean
maitasunezko katearekin.
Ezin
ezin.

XII

"Gurutzean jasota
miñez aseturik
| da Jesus maitea
gure onagaitik"

"Pekatarari tristea
damuz negar egizu
pekatuz Jesus ona zuk
gurutzetu dezu.

Kalbariko mendira
igo zaitez lenbailen
bertan ikusi dezazun
zure Jauna iltzen.
Begera zer maitasuna
zurekin edukiduben
ta nola bere bizia
eman dizun salba
zaitezen". (Erri-abezia)

Miñetan igari
zaude.
baiña orain
il bear dezu.
Darkarka
arnas-gurutza,
eguzkia itzaldute
illuna inguruan,
zure barruan
burruka galdua,
indarrak
bearko dituzu
neurrigabeak,
ardo-miñez ontzia
gaiñezkia,
mendialakoak
barnean nekeak,
arnasa palta
ito-bearra
lausoaz begiak.

— Ez det amarik ikusten
nere inguruan
— Emen naiz. seme,
gurutzepean,
odola tantaka
nere magalean...

Egarri naiz
legoru zait
mingaiña
ladrillu legorak aiña.
— Egarri zera, Jauna,
nere maitasun egarri
zure laguna
naidet izan
orain eta beti.
— Aita,
zure eskuetan nadin,
zukan det
betirako atsegin.

Begiak itxi
burua makurtu

GARIZUMEA

gorpuza lasaitu aizkena iritxi. Atoz, Eriotz. zu zera nagusi. ***	ai zer ezpata daukan amak biotzean". ***	Jesus eta biotz-erdian sartu. Zuloa badu nere biotzak osin beltza lakoa. Batek bakar-bakarrik bete lezake: Zu.	— Jeiki oiñartetik eta esan nere laguneri alkartuko gerala... ***	danak akarri hegira luzarokoan biotzak goibel, buruak croan bildurra zalantza barru-banuan.
Nere ordez il da nere maitea, orra bildots ezti errugabea.	Semearen begien gainean amaren malkoak jarioka eten gabeko ibai.	Amaren biotza samiñez eiota. Samiña maitasunaren alderantzia bait da.	Maria mendian beera erotuta bezela korrika presaka aurrera beti aurrera kale estuak zear eskilleretan *ora. - Tan tan. — Zer da? — Maixua piztu da. Jantziak bakarrik illobia uts. Oiñetan aingeru. baratzean Jesus bizi-bizirik maitekor...? ***	Eguerdiko janak maigaiñean goserik ez eta sobrean morrollo zaarra atean. Bat batean orma gogorra erdibi argi-iturri. Erdian Jesusen iduri. Apostoluak dar-dar. — Pakea zuentzat pakea berriz borondate onekoari. Pantasmarik ez da aragizkoa naiz to, Pedro. mire eskuak hegira zuloai.
Eriotza baldin bada pekatuen saria ez du Arka pekatuarikan ni naiz pekataria ni naiz pekataria. Semearekin ez dezu ze izan errukia guretzat izan dedin betiko biziari.	— Jesus, nere erraietako zati, esan eidazu bai. Betazalak jaso Belarriak iriki egiozu kaso zure amari.	Jainko biotz-euleak aririk zurienak aririk gorrienak erabilli bait zitun bere amaren biotza eiotzeko.	— Tan tan. — Zer da? — Maixua piztu da. Jantziak bakarrik illobia uts. Oiñetan aingeru. baratzean Jesus bizi-bizirik maitekor...? ***	Jesusen inguruan bildu dira apostuluak parra ezpañetan begian malkoak zabal-zabal biotzak leertu bearrezkoak. Au pozaren zurrunbilloa pozaren pozez erotzekoa Jesusekin batera sartu da itxaropena illun beltzean zeuden biotzak argiratzen, biziaren zoragarria.
Nere alde il da nere maitea. orra bildots ezti errugabea.	— Jesus joanik da, ama. Emendik aurrera guretzako bere izpillua zu zera. Jainko semea zure magalean aurkituko degu illunpean gordea.	Zuri elorri-arantzaren zuria garbia. Gorri su-garraren gorria garbia. Emateko zabal, ez-bearrean laguntzeko... Gorputzik ez magalean, lurperatu dizute semea, biotzaren bakardardea... Agur. Ama maitea.	Alkarri hegira apostuluak, barman biotz elkorak, sinisgaitzak dira emakumee onen kontuak. — Oiek danak amesgaiak, buru eroaren fruituak. illobia ari bizian egiña atean arri borobil gordiña aundia lodia eun erraldekoa mogitu eziña. Kanpotik erromatar soldadu zar guardian. Gaitza andik gorputza kentzerik. — Ba, Jesus piztu da alkarrekin egon gara. — Zaude Maria lasai erokeririk ez degu nai. ***	Jesusen inguruan bildu dira apostuluak parra ezpañetan begian malkoak zabal-zabal biotzak leertu bearrezkoak. Au pozaren zurrunbilloa pozaren pozez erotzekoa Jesusekin batera sartu da itxaropena illun beltzean zeuden biotzak argiratzen, biziaren zoragarria.
"Ostiral Santuz Golgota mendin enarak zer zebiltzen? Jesusen zorrotzak gutxitzen. Ai nere Jesus, maite maitea, zein egon ari lediken josirik zauden gurutze ortan zure nekeak arintzen..." (Erri-abestia)	XIV "Obira dutenean Jaunaren gorputza itsaso samiña da Amaren biotza". ***	AZKENA Nor Jainkoa bezela?	— Oiek danak amesgaiak, buru eroaren fruituak. illobia ari bizian egiña atean arri borobil gordiña aundia lodia eun erraldekoa mogitu eziña. Kanpotik erromatar soldadu zar guardian. Gaitza andik gorputza kentzerik. — Ba, Jesus piztu da alkarrekin egon gara. — Zaude Maria lasai erokeririk ez degu nai. ***	Jesusen inguruan bildu dira apostuluak parra ezpañetan begian malkoak zabal-zabal biotzak leertu bearrezkoak. Au pozaren zurrunbilloa pozaren pozez erotzekoa Jesusekin batera sartu da itxaropena illun beltzean zeuden biotzak argiratzen, biziaren zoragarria.
Zue nekea: nerelagunurkoarena da zurea. Nere inguruan zaitut bizirik. Nere inguruan dabilten nekeak oiek dira zureak. Askotan igaro naiz aldamenetik neke oieri begiratzeke. Aurrerantz neke oieri obeto begiratzea izanen da, Jauna asmoa nerean.	Arri gogorraren zuloa, zulo illun ikaratzekoa, bertan lo dagin Jesusen gorputz ebagi piztu bearrezkoa. Illobia ez da bera bakarrik arritzkoa, bada aiñakoa gizonaren biotza. Gure gurutzean neurriak Jesusen goputz ebagiak ditu. Zauri bakoitzean odol artean pekatuen arrasto beltzak dakus. Zatoz len-bai-len gugana	Gurutzetik argira, eriotzatik bizira, Ostiral Santurik Pazko egunera. *** Nagusitasuna nun dezu Eriotz madarikatu? Garaipena illobitik irten duenak daramena. — Maria, bidean zer? — Illobi utsda, mainer tolestuak bañan Jesusen gorputzik ez. Zuk eramán al dezu? — Maria. — Nere biotzeko Maixua.	— Ba, Jesus piztu da alkarrekin egon gara. — Zaude Maria lasai erokeririk ez degu nai. *** Luze dijoaz orduak Zenakuloan	— Zoazte mundu zabalera nere Berri Ona eramatera. Zeruan aita dezute bitartekoa naiz ni pekatuak barkapena du zeruko atek zabaldu inpernuakoak itxi zuekin izango naiz orain eta beti.
XIII "Semearen gorputza jetxi dutenean				ANES

ABERTZALEAK KALAGORRIN!

Egun ederrak izan ziran benetan Abenduko oneik, 14 eta 15'a Kalagorri, Andosilla, Lizarratik zear gizon aundi baten laguntzaz. Jose Mari (Latzaga). Apaiza bera, Jainkoa eta erriagaitik bizi guztia emoten dauana.

Euzkerazaintza'ren azkeneko batzarrean, Azilla'ren 29an egin zana bete; berak laguntza eskatu eban bidai ori bete egiteko, euskeraz ikasi gura dauan talde bat bideratzeko, eta nik lagundu egingo nebala esan nautson.

Bere etxean baskaldu gendun, Donostin ain zuzen, bere arrebak ondo apaindua eta arrain mota berezi bat leenengoz jan neban; arrain gorria esan eban zala Jose Mari'ren arrebak, guk Urraburu edo Urre-arrain esaten dautsagu.

Lauretan urten gendun etxetik Lizarra'ranta Andosillan geratzeko. Seiretan eldu ginan, eta bereala Josetxo'ren etxera joan ginan. Or, nire leenengo arrigarritasuna: bertako abertzale zintzo bat aurrez-aurre topo egiteaz, euren nortasunagaitik guztiz arduratuta. Bere amak zabaldu euskun atea, eta ondo artuak izan ginan. Etxe nasaia zan, garbia ta ondo apaindua; lekua moztu egiten daben alper bitxikeririk ez zan egon, eta ori bakarrik niretzat gauza asko esaten dauzena da. Bai erreztasun eta zentzun aundiko alkar-izketarako be. Andra ona benetan!

Sei ta erdietan urten gendun Kalagorri'runtz, eta ordu laurdenean bertan egon ginan. Laster aurkitu gendun taldea, eta bertan, tabernako mai baten jarri ginan. Jose Mari'gaz,

ditekezan guztiak uste dot ikutu zituela laguntzari atzema-teko. Urduritasun gogorak ikusi nebazan mai ortan! Azken batez, dantzari talde baten bidez gogoratzen azi ziran, eta Jose Mari, astean baten joango zala eurongana euskera irakasteko, eurok gero irakasleen ardurak betetekotan.

Talde makala ez da, amalau gazteen artean olango ardurak euki ez-gero euskera eta nortasunari begira. Aiek bai bizi dirala umezurtz, xurtx edo babes-gabe! Zer egiten dogu guk?

Bazkal-apariketa txiki bat egin gendun ardan-etxe "bodegón" deritxonean, eta agurtuaz, itzuli ginen Andosilla'runtz Josetxo bere etxean itxiteko, eta gu Lizarrarantza, an Jose Mari'k daukan etxe-bizitzan lo egiteko.

Etixerako bidean, mendi gainean geratu ginan Jose Mari eskatuta, eta itaun egin eustan: "Zer esaten daustazu edertasun onetzaz?". Begitu neban, eta ango aretx, pago billustuak, euren orriak zelairatuta eta goroldi irudi zoragarri bat agertzen zan, batez be begi eta biotzean. Orren gogamene-kin: JAINKOA'ren edertasun-eredu gurentzat erantzun netson. "Lan bikainaren orde. Pakearen irudia. Lasaitasunaren irudi zoragarria. Bere lanetik artzeko esaten deuskuna, beraren neurrizko ardura betekin" esanz.

**Atxutxa'tar Paul
Zornotzan 1998'ko urtarrilla'ren 14an**

ZOROETXEAN

Zoro batek, uger egiten jakin barik, bere burua ugeritegira jaurti eban. Etxeko batek, baiña, uretatik atara eban, eta zuzendariak oneri dei eginda, badiñotso:

- Nire zorionik biziena emon bear dautsut, lagun baten bizitza gaizkatu dozulako, baiña barri txar bat emon bear dautsut: Zeuk gaizkaturiko lagunak zugaitz batera igonda, bere burua urkatu dau.

- Bera ez zan igon zugaitzera. Neronek ipiñi neban antxe, legortu zeiten.

EPEA

- Ona natortzu ume-orgatxuaren azken epea ordaitzeko.

Ta, zelan dago umea...?

- Ondo benetan...! Biar bertan ezkonduko da.

Gizon zorionsua, aizeak aide putz dagian oial-on-tziaren antzekoa da. TXINATAR ESAEREA.

AMA!

Gure euskera maite onek daukan barbarik gozoena, itzik ederrena, Amal...

Guztiok txiki ta andi, bai aberats bai beartsu, lotsaz esaten dogun izen maitagarria. Nok azaldu leike ama baten seme-alabentzako maitasuna? Zelan aditzera emon, ama batek beste seme-alabak azi ta bear dan lez erakusteko artzen dauzan nekeak? Amaren maitasun neurribakoa! nekeak? Amaren maitasun neurribakoa! Nok eztau entzun gaizkille aren jazoera negargarria?

Urkamendira eroan eben gaizkille bat. Lagunen esanak, abadearen azalpenak dana alperrik: ez eutson iñori jaramon egin nai, aren biotz igartuan ez egoan damurik... Itsukeri orretan ilko ete zan, ba? Ez! An egoan bere ama, gau ta egun otoika ta negarrez. Ta ez ezerk eta ez iñork jaretxi-eziña, amaren negar eta otoiak egin eben Goi-argi batek ikutirk, kurutzari begira ta "Jesus" ka emon eban azken-amasa gizajo arek. Orra or amaren indarra, amaren maitasuna... Maite daigun biotz-biotzez gure Ama!


**X. Peña'k
"Euskerazaleak" en ikas-kiburuan**

* *****;: :::*****

EUSKALDUN BARRIENTZAT

NOTA e

NOTA e




Pasa dozu azterketa?

top - top
VN dIVZV

Sugeak, bere kabira joan bear dau. Lagundu!



Marrazki onetan 7 ezberditasun dagoz. Aurkitu!



Azalpena


KARMELE



aUasMMazaLEa^g

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

I A BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa